




EUSKAL OHITURA ETA TRADIZIOAK



Egutegia



PERTSONAIAK

ARGITXO



MARITXU TEILATUKO



EUSKARAREN TXANTXANGORRIA



EUSKAL MITOLOGIA



AHO BIZI eta BELARRI PREST



Agate deuna eguna otsailaren 5ean izaten da eta bezperan, otsailak 4, ikastolako ikasle eta irakasleak baserritar jantziekin kalera irteten gara auzoko txoko desberdinetan bertsoak abestera.

Negua bukatzen dagoelarik, eguna luzatzen hasten denean, zuhaitz adarrak kimu berritzen hasten dira eta orduantxe izaten da zuhaitz adarrak kimatu edo inausteko garaia. Hala, naturaren esnatzea ospakizun bihurturik, antzinean, kimaturiko makilekin lurra jotzen zuten eta kopla kantari ibiltzen ziren mutilak etxerik etxe janari eske. Ondoren, bildutakoarekin, mutil eta neska denek batera afaltzen zuten. Kristautasuna Euskal Herrira zabaldu zenean, Santa Agata eguna ekarri zuen berekin eta lehendik zegoen ospakizuna bereganatu eta itxura berri bat eman zion.

AGATE DEUNA



El día de Santa Águeda es el 5 de febrero y la víspera, el 4 de febrero, los alumnos y profesores de la ikastola salimos a la calle vestidos de baserritarras a cantar bertsos en diferentes rincones del barrio.

Al terminar el invierno, cuando el día comienza a prolongarse, las ramas de los árboles comienzan a renacer y es entonces cuando se podan las ramas de los árboles. Así, convirtiendo el despertar de la naturaleza en una celebración, antiguamente, los jóvenes golpeaban el suelo con las ramas podadas y cantaban coplas de casa en casa pidiendo comida. Después, con lo recogido, todos los chicos y chicas cenaban juntos. Cuando el cristianismo se extendió al País Vasco, trajo consigo la festividad de Santa Águeda y adquirió para sí la celebración que ya existía y le dio un nuevo aspecto.





Munduan zehar ospatzen den ospakizuna da, baina Euskal Herrian ere bertako inauteriak baditugu. Hainbat herritan tradiziozko mozerroak janzten dituzte.

Kristautasunetik begiratuta garizumaren aurretik ospatzen da, beste zenbait lekutan negua bukatu eta udaberriari ongi etorria emateko jaialdia izaten da.

INAUTERIAK

Es una celebración que se celebra por todo el mundo, pero en Euskal Herria también tenemos nuestros carnavales. En muchas localidades visten sus trajes tradicionales.

Desde el punto de vista del cristianismo se celebra el día anterior a la Cuaresma, pero en otras creencias se celebra cuando termina el invierno y se da la bienvenida a la primavera.



KORRIKA



Korrika es una iniciativa muy importante a favor del euskera organizada por AEK (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea - entidad que se dedica a enseñar euskera a los adultos-).

Durante 11 días y 10 noches, recorren Euskal Herria sin que miles de corredores se detengan. Desde el comienzo hasta el final, un testigo pasa de mano en mano. En su interior hay un mensaje que se lee al llegar a su destino.

Desde que en 1980 se organizó la primera Korrika, cada dos años podemos celebrar esta maravillosa marcha a favor del euskera.

AEK-k (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea -helduei euskara irakasten diharduen herri erakundea-) antolatzen duen euskararen aldeko ekimen oso garrantzitsua da Korrika.

11 egunetz eta 10 gauetz, Euskal Herria zehartzen dute milaka korrikalarik gelditu gabe. Hasi eta amaitu arte, lekuko bat pasatzen doaz eskuz-esku. Bere barruan mezu bat dago, helmugara heltzerakoan irakurri egiten dena.

1980an lehendabiziko Korrika antolatu egin zenetik, bi urterik behin ospatu dezakegu euskararen aldeko martxa zoragarri hau.



SAN JUAN SUA

San Juan eguna ekainaren 24an ospatzen den eguna da eta egun horren bezperan, hau da, ekainaren 23an, San Juan sua egiten da. Urteko gaurik motzena da, eta suaren bitartez hainbat gauza aldarrikatu edo ospa daitezke (udaren etorrera, gauza txarren bukaera, etab.) Suaren inguruan dantza edota suaren gainetik salto ere egiten da.

El día de San Juan se celebra el 24 de junio y la víspera de ese día, es decir, el 23 de junio se realiza la hoguera de San Juan. Es la noche más corta del año y a través del fuego se pueden reivindicar o celebrar muchas cosas (la llegada del verano, fin de las cosas malas, etc.) Se baila alrededor del fuego o incluso se salta por encima de él.



BILBOKO JAIAK



La Aste Nagusia de Bilbao es la fiesta mayor de Bilbao, que se celebra cada año durante nueve días a partir del sábado 15 de agosto.

Marijaia es el icono de la Aste Nagusia. La lectura del pregón y el lanzamiento del txupin desde un balcón del Teatro Arriaga marcan el inicio de las fiestas a cargo de dos personajes designados por la Comisión: el pregonero y la txupinera.

El pregonero lee el pregón que anuncia el inicio de las fiestas. Actualmente se elige una persona o colectivo conocido de Bilbao para ocupar el puesto.

La txupinera, por su parte, ha sido históricamente una labor municipal que sólo han venido desempeñando las mujeres y su cometido ha sido dar el aviso lanzando cohetes o chupines. El puesto suele estar a cargo de una comparsa.

Bilboko Aste Nagusia, Bilboko jai nagusia da, urtero bederatzi egunez ospatzen dena abuztuaren 15aren ondorengo larunbatetik aurrera.

Marijaia Aste Nagusiaren ikonoa da. Pregoia irakurtzeak eta Arriaga Antzokiko balkoi batetik txupina botatzeak markatzen dute jaien hasiera, Batzordeak izendatutako bi pertsonaiaren eskutik: pregoilaria eta txupinera.

Pregoilariak jaien hasiera iragartzen duen pregoia irakurtzen du. Gaur egun, Bilboko pertsona edo kolektibo ezagun bat aukeratzen da postua betetzeko.

Txupinera, berriz, emakumeek bakarrik bete izan duten udal-lana izan da historikoki, eta suziriak edo txupinak jaurtiz, abisua ematea izan da haren zeregina. Postua konpartsakide baten ardurapean egoten da.



ARIMEN GAUA edo GAU BELTZA



Halloween mundu mailan zabaldu orduko Euskal Herrian beti izanda ohitura Domu santu egunaren bezperan, urriaren 31n, ospakizun hau ospatzea. Izara zaharrak buruan eta kalabaza hartuta ospatu izanda urteetan zehar.

Para cuando Halloween se extendió a nivel mundial, en Euskal Herria siempre ha sido costumbre celebrar esta celebración en vísperas del día de todos los santos, el 31 de octubre. Durante todos estos años se ha celebrado vistiendo sábanas viejas en la cabeza y portando una calabaza.





EUSKARAREN EGUNA

1995ean, Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak erabaki zuten abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko zela. Egun horretan euskara aldarrikatzeko hainbat ekintza egiten dira udalerritaskotan. Baina jai hau ez da Euskal Herrian bakarrik ospatzen, munduko beste herrialde batzuetara hedatu da baita ere.

En 1995, Euskaltzaindia y Eusko Ikaskuntza decidieron que el 3 de diciembre se celebraría el Día Internacional del Euskera. Ese día se llevan a cabo diversas actividades para reivindicar el euskera en muchos municipios. Pero esta fiesta no sólo se celebra en Euskal Herria, sino que también se ha extendido a otros países del mundo.





Durangoko Azoka (DA!) Durangon, abenduaren hasieran ospatzen den liburuen eta diskoen azoka da. Helburua Euskal Herriko liburugintza eta diskogintzako ekoizpena ezagutzera ematea da. Liburuak eta diskak erosteko postuak egoteaz gain, idazle, abeslari eta musika talde desberdinekin zuzenean egoteko aukera ere izaten da. Azoka egunetan, Durango Euskararen eta euskal kulturaren "hiriburu" izendatzen dute zenbaitzuek.

DURANGOKO AZOKA

Durangoko Azoka (DA!) Se trata de una feria de libros y discos que se celebra en Durango a principios de diciembre. El objetivo es dar a conocer la producción editorial y discográfica de Euskal Herria. Además, de haber diferentes stands para comprar libros y discos, se tiene la posibilidad de estar en directo con escritores, cantantes y grupos musicales. Durante los días de feria, Durango es la "capital" del euskera y de la cultura vasca.



SAN TOMAS AZOKA

Euskal Herriko azokarik ezagunena da, abenduaren 21ean ospatzen da.

Eguberriak datozela eta, baserritarrek udazkenean jasotako produkturik onenak salgai jartzen dituzte. Postu ugari jartzen dituzte baserritarrek (fruitu, barazki...) eta abereen lehiaketak egiten dira.

Azoka honen jatorria XIX. mendean dago. Garai hartan baserritar gehienek baserriaren errenta ordaindu behar izaten zioten baserriaren jabeari. Errenta hori urte amaieran ordaintzen zen eta epea San Tomaseguna zen. Egun horretan, baserritarrak hirira joaten zirenez errenta ordaintzera, aprobetxatuta, baserriko produktu horiek saltzen zizkioten hiriko jendeari.



Es la feria más popular de Euskal Herria, se celebra el 21 de diciembre.

Con la llegada de la Navidad, los baserritarras ponen a la venta los mejores productos cosechados en otoño.

Colocan numerosos puestos (de frutas, verduras...) y también se celebran concursos de ganado.

El origen de esta feria se remonta al siglo XIX. En aquella época la mayoría de los caseros tenían que pagar anualmente la renta del caserío al propietario del mismo. Esta renta se pagaba a finales de año y el plazo era hasta el día de Santo Tomás. Ese día los caseros cogían los mejores productos del caserío y se trasladaban a la ciudad para pagar la renta al propietario. Aprovechaban el viaje y vendían sus productos del caserío a la gente de la ciudad.

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

Gabonetan umeei zein helduei opariak ekartzen dizkien euskal pertsonaiak dira. Olentzero ikazkina eta bere laguntzailea Mari Domingi menditik jeisten dira astoaren gainean abenduaren 24 gauean, opariak banatzera. 25 goizean Euskal Herriko hainbat familiek opariak irekitzeko tartea hartzen dute. Abenduan, ikastolan oporrak hartzen ditugun egunean, baserritar jantzita etortzen gara ongi etorria egiteko eta gabon kantak abesten ditugu.



Son personajes vascos que traen regalos tanto a niños como a adultos en Navidad. El carbonero Olentzero y su ayudante Mari Domingi bajan del monte en burro la noche del 24 de diciembre para repartir regalos. El 25 por la mañana las familias de Euskal Herria abren sus regalos.


El último día lectivo de diciembre el alumnado de la ikastola se viste de baserritarras para darles la bienvenida y cantamos villancicos.



ARGITXO

Haurrak txikiak direnetik euskarari lotuta dagoen iratxo magikoa da Argitxo. Menditik dator eta kriseilu bat darama eskuan. Argitxok euskara bizirik mantendu nahi du eta erabiltzen animatzen gaitu, klasean, patioan, autobusean, jantokian, etxean, parkean...

Argitxo oso motibatzailea da eta baieztapen positiboak baino ez ditu egiten, une oro maitasun handia erakutsiz. Ikastolen Elkarteak asmatutako pertsonaia da.



Argitxo es el duende mágico que está unido al euskara desde que los niños son pequeños. Viene del monte y suele llevar un candil. Argitxo quiere mantener vivo el euskara y nos anima a que lo utilicemos, en clase, en el patio, en el autobús, en el comedor, en casa, en el parque...


Argitxo es muy motivador y sólo hace afirmaciones positivas hacia el euskara demostrando mucho cariño en todo momento.

Es un personaje inventado por la Federación de Ikastolas.

EUSKARAREN TXANTXANGORRIA

Euskararen txantxangorria euskaraz hitz egiteko gonbita egiten duen sinboloa da. Honen helburua euskara gehiago erabiltzea eta entzutea da, baita euskaraz hitz egiteko gonbita bistakoa izatea eta jendeak erraz identifikatzea gonbita hori. Ikurra administrazio publikoko bulegoetan, eraikin publikoetan, garraio zerbitzuetan, osasun zerbitzuetan, eskoletan... topa daiteke.

Txantxangorria aukeratu zen honen sinbolo gisa txantxangorria animalia txikia delako, oso maitea, azkarra eta bizia. Euskarak bezala hegoak hastintzea behar du hegan egiteko eta airean mugitzeko



El txantxangorri (petirrojo) del euskera es un símbolo que invita a hablar en euskera. El objetivo de esta iniciativa es aumentar el uso y la escucha del euskera, así como que sea visible la invitación a hablar en euskera y que la gente identifique fácilmente esa invitación. El símbolo se puede encontrar en oficinas de la administración pública, edificios públicos, servicios de transporte, servicios sanitarios, escuelas... El txantxangorri fue elegido como símbolo del euskera porque el txantxangorri es un animal pequeño, muy querido, rápido e vivaz. Necesita agitar las alas como el euskera para volar y moverse por el aire.

AHOBIZI ETA BELARRIPREST



Euskaraldia euskaraz egiteko garai bat da. Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masibo honek epe mugatu bat du (11-15 egunez) eta partehartzaileek txapa bat janzten dute. Bi aukera daude: ahobizi edo belarriprest izatea. Ahobiziek euskaraz ulertzen duten guztiakin euskaraz egiten dute uneoro. Haien lehen hitzak, beti, euskaraz egiten dituzte; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dute. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diote kideek ulertzen dutenean. Belarriprestek aldiro erabakitzen dute euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dute euskaraz egingo ulertzen duten guztiakin, baina euskara dakitenekin euskaraz hitz egitea nahi dute, eta horixe eskatzen diete modu esplizituan txaparekin.

Euskaraldia es una época para hablar en euskera. El objetivo principal de Euskaraldia es aumentar el uso del euskera a través de la modificación de los hábitos lingüísticos de la ciudadanía. Este ejercicio social masivo de cambio de hábitos lingüísticos tiene un plazo limitado (11-15 días) y los participantes se ponen una chapa. Hay dos opciones: ser ahobizi o belarriprest. Los ahobizis hablan en todo momento en euskera con todos los que entienden euskera. Sus primeras palabras son, siempre, en euskera; si entienden euskera, siguen en euskera. Aunque a veces sea difícil, en las conversaciones bilingües también mantienen el euskera cuando sus compañeros lo entienden. Los belarriprest deciden cada vez cuándo y con quién hablar en euskera. Quizá no siempre lo hagan en euskera con todos los que lo entiendan, pero quieren que los que saben euskera les hablen en ese idioma y es lo que les piden de forma explícita con la chapa.

MARITXU TEILATUKO

Maritxu Telletuko edo Maritxu Teilatuko ahozko euskal tradizioan umeen esne hortzak batu eta ordainetan zer bait ematen dien izakia da. Esnezko hortz bat erortzen zaigunean, oheko buruko azpian gorde dezakegu eta lo gaudenean Maritxu Teilatukok hegan eramango du zeruraino. Hurrengo gauean begiratu zerura eta zure hortza izar bilakatu dela ikusi dezakezu.



Maritxu Telletuko o Maritxu Teilatuko es una criatura que en la tradición oral vasca que recoge los dientes de leche de los niños y les da algo a cambio. Cuando se nos cae un diente de leche podemos guardarlo debajo de la almohada y cuando estemos dormidos, Maritxu Teilatuko lo llevará volando hasta el cielo. La noche siguiente puedes mirar al cielo y ver que tu diente se ha convertido en una estrella.

EUSKAL MITOLOGIA

Kristautasunaren aurretik Euskal Herrian zeuden sinesmenen, pertsonaia mitikoen eta elezaharren multzoak osatzen du euskal mitologia. Naturaz gaindiko mundu bat da, gizakiak berak sortua bizitzaren funtsezko arazoei erantzuteko helburuarekin. Euskaldunen antzinako erlijioa izan zen mitologia, nolabait esatearren. Mari da Jainkosen erregina, eta berak menderatzen ditu pertsonaia mitologiko guztiak. QR-an topatuko dituzue pertsonaia nagusiak.



La mitología vasca se compone de un conjunto de creencias, personajes míticos y leyendas precristianas en el País Vasco. Se trata de un mundo sobrenatural creado por el propio ser humano con el objetivo de dar respuesta a los problemas fundamentales de la vida. La mitología fue, por decirlo así, la antigua religión de los vascos. Mari es la reina de los dioses y ella domina todos los personajes mitológicos. Encontraréis a los personajes principales en el QR.



E K A R P E N A K

Liburu honen helburua euskal kultura ezagutzen ez duten famliei gure kultura eta tradizioen zertzelada orokor batzuk helaraztea da. Festarik edo pertsonaiarik falta dela uste baduzu, jakinaraz diezaguzu. Dokumentu hau dokumentu bizia da, guztion artean elikatu dezakeguna.

El objetivo de este libro es hacer llegar a las familias que no conocen la cultura vasca, unas pinceladas generales de nuestra cultura y tradiciones. Si crees que falta alguna festividad o personaje, haznoslo saber. Este documento es un documento vivo, que podemos alimentar entre todos. Puedes mandarnos tus propuestas a la siguiente dirección de email: hizpro@abusu.ikastola.eus

**Bidali zure proposamenak
helbide elektroniko
honetara:
hizpro@abusu.ikastola.eus**

